

DURANGOKO AZOKA

Urtero, abenduko zubiarekin batera, DURANGOKO AZOKA izaten dugu gure herrian. Durangoko Azoka iragartzeko egindako kartelen bitartez Azokaren beraren historia, aldaketak, guneak eta bitxikeriak ikasiko ditugu.

Azken helburua Azokako kartela geuk diseinatzea eta etorkizuneko Azoka zelakoa izango den irudikatzea izango da.

| | |
|--|----|
| <i>Mari eta konpainia</i> | 2 |
| <i>Hasierako urteak</i> | 4 |
| <i>Nerea Mujika Ullazia</i> | 5 |
| <i>Gerediaga Elkarteak</i> | 6 |
| <i>Julene Azpeitia Gomez</i> | 8 |
| <i>Ondorengo urteak</i> | 8 |
| <i>Joseba Sarrionandia Uribelarrea</i> | 9 |
| <i>Katuen kantua. Gose</i> | 12 |
| <i>Azoka XXI. mendean</i> | 14 |
| <i>Azokaren barruko azokak</i> | 15 |
| <i>Leire Bilbao Barruetabeña</i> | 14 |
| <i>Azken ekaizpena</i> | 15 |
| <i>Zer ikasi dut?</i> | 16 |

Lege gordailua: SS 1161-2015 • **Argitaratzailea:** Durangoko Udala eta Iametzta Interaktiboa • **Koordinazioa:** Iametzta Interaktiboa • **Edukien egilea:** Unai Iturriaga • **Diseinua eta maketazioa:** Garbine Ubeda Goikoetxea • **Hezkuntza aholkulariak:** Jon Akarregi, Ander Goikoetxea eta Josu Retolaza • **Argazkien jabeak:** Gerediaga elkarteak, Unai Iturriaga, Durangoko Udala, Gose, Leire Bilbao eta Maite Mutuberria. • **Kolaboratzaileak:** Landako eskola, Kurutziaga ikastola, San Jose Jesuitak ikastetxea, San Antonio-Santa Rita ikastetxea, Frai Juan Zumarraga institutua, Nevers ikastetxea eta Zabalarra eskola. • **Inprimategia:** Antza, S.A.L.

Mari eta konpainia




AZOKA ERRALDOI BAT DA, LIBURUZ, ETA DISKOZ BETETA! ETA JENDE PILA BAT ETORTZEN DA!

A, BAI? ETA NON EGITEN DA, BA?

LANDAKO ERAKUSTAZOKAN. BADA KIZU NON DAGOEN, EZTA?

BAAAA... BENOOO... EEE...



BERRIKETAN

- Eta zu egon al zara inoiz Durangoko Azokan?
- Ba al dakizu non egiten den?
- Nork antolatzen duen?
- Gogoan al daukazu iazko Durangoko Azoka iragartzeko erabilitako kartela?

Azoka txikia

Sekuentzian zehar gure Durango txikia sortzen joango gara. Durangoko Azokarekin zerikusia daukan edozein material ekarri dezakezue, liburuak, argazkiak, objektuak... Seguru azken ekoizpenera bidean lagungarri gertatuko zaizkigula!






1963.

Begiratu


arretaz Durangoko Azokaren hasierako urteetako kartel bi hauei. Erreparatu irudiari eta ematen duen informazioari. Zer deritzozue?



1973.

IDATZIZ LANDU

- Zer diosku marrazkiak? (Zergatik zuhaitz hori?)
- Zer informazio ematen digu kartelak?
- Zer hilabetean egin zen lehenengo Liburu eta Disko azoka?
- Ba al dakizu non egiten ote zen Azoka?
- Nork antolatzen zuen Azoka?





Nerea Mujika Ulazia

1960, Durango

- GEREDIAGA ELKARTEKO LEHENDAKARIA.
- DEUSTUKO UNIBERTSITATEKO TURISMO IRAKASLEA.
- EUSKAL GAIEN INSTITUTUKO ZUZENDARIA.

Nerea Mujika naiz, Gerediaga elkarteko bazkidea aspalditik eta lehendakaria 2004az geroztik. Beraz, 10 urte daramatzat lehendakari.

Gerediaga Elkartea bera 1965ean sortu zen. Durangaldearen eta durangarren etorkizunaz arduratuta zegoen gizon-emakume taldea izan zen sortzailea.

Ausartak eta trebeak izan ziren gizon eta emakume haiek, zeren eta, urte haietan, 1965ean, Frankismo garaian, diktadurapean holako elkarte bat sortzea bera ez zen ahuntzaren gauerdiko eztula! Entzungo zenutenez orduan, diktadura garaian, debekatuta baitzegoen euskal "usaina" zeukan guztia.

Zer asmorekin sortu zan Gerediaga?

Lehenengoa, Durangaldeko ezaugarri berezien babesa eta zabalkundea egitea. Adibidez: baserri, etxe, eliza, errota, paisaia eta halakoak zaindu eta ezagutaraztea. Gure historia ere aztertu dugu, Durangaldekoa, gero zeuei eta beste askori erakusteko.

Bigarren asmoa eskualdea indartzea zen: zer da eskualdea? Durangaldea, Durango eta bere inguruko herriak elkartu eta bat eginda ekintza asko aurrera ataratzeko.

Egia da, hala ere, gure ekintza ezagunena Liburu eta Disko Azoka dela. Lehenengoz 1965ean, Gerediaga sortu zen urtean antolatu zen. Orduan ez zen erraza izaten euskal liburuak eta diskoak aurkitzea eta gutxiago denak alkartuta. Orduan ez zegoen internetik eta holakorik...

Lehenengo ekitaldi hura eta beste mordoxka bat Andra Mariko elizpean izan ziren. Ez daukat ahazteko umetako akordu bat, amagaz Azokara joan eta, hango hotza eta nire ilusioa nahastuta, amak *Xabiartxo* liburua erosi zidanean...

Apurka apurka, azoka handitzen joan zen eta Andra Maritik merkatu plazara pasatu zen. Urteak egin zituen han baina txiki geratu zen. Gero, zirkoa legez, karpa batetik bestera urte batzuk emon ostean, jakingo duzue, 2004. urtetik hona Landakon antolatzen dugu azoka.

Eta zuei, durangoko ikasleoi zer esan? Eskerrik asko jarri duzun interesagatik. Animatzen zaituztet azokaz disfrutatzen, jakinda modu desberdinean disfrutatuko duzuela aurten edo hemendik 10 urtera, baina beti ondo pasatuko duzue, hori seguru!



Azoka Andra Marikan,
70. hamarkadan.



Azoka merkatu plazan,
90. hamarkadan.



Azoka
Landakogunean,
2012an.



Informazioa batu eta eman

Mujikaren elkarrizketa entzun eta irakurri ostean, laburpen bat idatzi Gerediaga Elkarte eta Durangoko Azokari buruzko informazioarekin.

Hona hemen informazioa osatzeko baliagarriak izango zaizkizun pare bat helbide:

- ▶ www.gerediaga.com
- ▶ www.durangokoazoka.com/eu



Bazenekien?



Badakizu nondik datorkion izena Gerediaga Elkarteari?

Gerediaga Abadiño udalerriko auzoa da eta bertan dago "Gerediagako Foru Zelaia" edo "Gerediagako Arbolaren Plaza" deritzona. Hamabi harri daude zirkuluan jarrita eta bertan batzartzen ziren Durangaldeko Merinaldea osatzen zuten hamabi elizetako ordezkariak. XV. mendetik XIX. mendera bitartean egin ziren batzarrok eta gaur egun Bizkaiko Batzar Nagusien egoitzetako bat da inguru hori.

Gerediaga elkartearen logotipoak ere gune horri egiten dio erreferentzia. Bazenekien?

Gerediaga Elkarte eta Durangoko Azokari buruzko oharrak:

Nork? Zer? Noiz?



Julene Azpeitia Gomez

Zumaia (Gipuzkoa) 1888/1/8

Bilbo (Bizkaia) 1980/2/5

- IDAZLEA.
- IRAKASLEA.

Zumaian jaio eta Bilbon zendu bazen ere, Durangon egin zuen bere bizialdiaren zati bat. Irakaskuntza izan zuen lanbiderik gogokoena, “mila bider jaioko banintzateke ere, maistra izango nintzateke”, aipatu zuen behin baino gehiagotan. Ezkondu eta gero, Mexikora joan zen eta, han, euskaraz idazteari ekin zion.

Lau urteren ostean, Euskal Herrira itzuli zen bertako ikastoletan lanean jarduteko. Abadiñoko Traña auzoko eskolan ibili zen maistra lanetan 1922tik 1936ra arte. Gerra ostean hainbat zigor jasan zituen: “Hamaika urte ikastola gabe, sei urte Burgosko herri txiki batean... Orain Durangon bizi naiz nere senarrarekin”. Hau 1961. urtean idatzi zuen Julenek. Sasoi hartan Durangoko Juan de Itziarren bizi zen, irakaskuntza utzirik eta idazteari lotuta.

Hona hemen haren lanetako batzuk: *Irakurri matte* (1932); *Amandriaren altzoan* (1961), *100 ipuin biltzen duen liburua*; *Umien Adiskidea* (1961); *Zuentzat* (1974), haurrentzako ipuin eta irakurgaiak, sasoi **Durangoko Liburu eta Disko Azokan** aurkeztu zuena.



- **Entzun al zenuen** aurretik inoiz Julene Azpeitiaren izena?
- **Ba al dakizu** zer izen daraman Durangoko Udalak antolatzen duen haur eta gaztetxoentzako ipuin lehiaketak?



- **Ba al dakizu** 2004az geroztik badela Durangon Julene Azpeitia izeneko Haur Eskola bat? Non ote dago?



Julene Azpeitari buruzko informazio gehiago:

▶ www.durango-euskaraz.net ▶ zubitegia.armiarma.com/?i=273



Irudiei berba jartzen

Julene Azpeitiak buruan zeuzkan irudiei berbak jartzen zizkien ipuinak osatuz. Guk orain alderantzikzo lana egingo dugu, Juleneren ipuinei irudiak jarriko dizkiogu. Irakurri *Peru eta Mariya* ipuina eta marraztu “ikusten” duzuna.

PERU ETA MARIYA

Bein bizi omen ziran Peru eta Mariya.

Peruk egiñ omen zuan txotxeko etxea, eta Mariyak egiñ omen zuan gatzezko etxea. Euria egin zuanean Mariyaren etxea urtu. Eta sua piztu zutenean Peru'ren etxea erre. Orra nun gelditu ziran Peru eta Mariya etxe gabe.

Au egia ez ba'zan, sartu deitela kalabazan, eta er-ten dezala Bitoria'ko plazan.


Julene Azpeitia

Amandriaren altzoan (1961) liburutik

MARRAZTU PERU ETA MARIYA

| | |
|--|--|
| | |
| | |

Ondorengo urteak



1984.



1986.



1990.

Begiratu arretaz joan den mende-ko 80. hamarkadako hiru kartelok eta konparatu Liburu eta Disko Azokaren hastapenetako kartelekin.

1986, 1987 eta 1988 urteetan abenduko azokaz gainera, udaberrian ere liburu eta disko azoka egin zen Durangon. Udaberrikoetan bakar-bakarrik euskaraz argitaratutako disko eta liburuak aurkezten ziren.

IDATZIZ LANDU

- Hasierakoak baino gehiago edo gutxiago gustatzen zaizkizue?
- Zer informazio ematen digu kartelak? Ez al duzue ezberdintasunen bat aurkitu?
- Ba al dakizu non egiten ote zen Azoka hamarkada horretan?

Osaba Bitterrek dio



Kartelei buruzko oharrak:



Joseba Sarrionandia Uribelarrea

1958, lurreta

• IDAZLEA.

Izuen gordelekuetan barrena poesia liburua izan zen argitaratu zuen lehenengoa, 1981ean. Hamaika liburu kaleratu du harrezkero idazle iurretarrak, izan poesia, saiakera, narrazio-bilduma edo nobela. Haur literaturan ere lan oparoa egin du, ondorengoak besteak beste: *Izaba Mariasunen ipuinak* (1989); *Ainhoari gutunak* (1990); *Harrapatutako txorien hegadak* (2005); *Munduko zazpi herrialdetako ipuinak*

(2008); *Idazlea zeu zara irakurtzen duzulako* (2010). 1980an kartzelaratu egin zuten eta 1985ean ihes egitea lortu zuen. Geroztik leku ezezagunen batetik bidaltzen ditu bere idazlanak.

Hainbat sari eta aitorten jaso izan ditu, tartean Euskadi Literatura Saria, eta bere poesiak behin eta berriz musikatu dituzte kantari eta talde ezagunek.

Informazio gehigarria: <http://zubitegia.armiarma.eus/?i=124>

ASMATU

- Irakurri Joseba Sarrionandiak *Izaba Mariasunen Ipuinak* liburuan argitaratutako ipuin hau eta saia zaitez amaiera asmatzen.

Izaba Mariasunek sarritan esaten zuen: “Ipuin bat kondutuko dizuet” eta orduan gu bere inguruan eseritzen ginen.

Izaba Mariasunen izarra zirkuluaren erdian dirdirutzen zen. Eta hasten zen: “Behin batean bazen mutil bat Ameriketara joateko ilusioa zuena. Joan da Baionara eta han hartu du untzi bat Guatemalarantz doana, jendez gainezka bete denean untzi hori abiatu da, Baionako barra iragan du, eta iadanik itsaso zabalean barrena doa...”

Eta isildu egiten zen itsasoaren tamainuaz gogoetan balego bezala.

Eta guk esaten genion: “Eta gero, izeba, zer gertatu zen?”

Eta berak: “Itxaron beharko duzue ea mutil hori itzuli eta zer gertatu zitzaion kontaktzen duen”.

Izaba Mariasunen ipuinak.

(1989) Elkar.



Idatzi amaiera:



Joseba Sarrionandiaren poemekin hamaika kanta egin dituzte euskal musikari askok eta askok. Beren beregi kantatuak izateko testuak ere idatzi izan ditu. *Katuaren kantua* GOSE taldearekin ondutako *Gosariak* diskoan ageri da.

Katuaren kantua

Katu bat lasai garaje alboan
buztana altxatuz miauka
kamioi handi bat heldu denean
burrubadan balaztaka.

Txoferrak eskatu du errime,
marmarrean eta irainka:
"Gurpil zahar hori puskatu baitzait,
nork daki hemen mekanika?"

Mekanikoa, logale, etzanda;
garagardoan katua:
"Ai zer tristea langilearen
atsedenaldi ukatua."

Halaxe da katua
nazkatu, konplikatu
eta madarikatua bilakatu.

Elkarri agintzen hasi dira eta
katuak entzun du garbi:
"Kamioia altxatu beharko du eta
horko katu hori ekarri!"

Katua jaiki eta arrapaladan
handik eskapatu nahiz:
"Zuen kamioiak zeuek altxatu,
ni katu bat baizik ez naiz!"

Bi polizia patruilakoek
ozen dute oihukatu:
"Katu hiztunak aspaldi ziren
hiri honetan debekatu!"

Halaxe da katua
nazkatu, konplikatu
eta madarikatu bilakatu.

Pistola bana atera eta
sakatu dute katua.
Tiro artean ihesi doa
lasai zegoen katua.

Katua harrapatu ezinik
geu gaituzte galdekatu.
Hagatik dugu ikusi legez
gertaera musikatu.


Katuak, katu, katuak katu,
Katuak eta katuak...
Katuen gauzak ere bilaka
daitezke konplikatuak.

Halaxe da katua
nazkatu, konplikatu
eta madarikatu bilakatu.



BERRIKETAN

- Esango al zenidake katu berbaren zenbat esanahi ezberdin ageri diren *Katuaren kantua* abestian?





Diskoaren azala egin

Katuaren kantua izeneko diskoa argitaratu behar dugu baina azalerako marrazkia falta zaigu. Seguru zuk egingo diguzula bat adotore askoa!




2004.



2007.

Azoka XXI. mendean


2014.



Begiratu arretaz hiru kartelok. Gogoratu eta begiratu berriro, beharrezkoa bada, Nerea Mujikaren elkarrizketa kartelok bere garaian eta lekuan kokatzeko.

IDATZIZ LANDU

- Hasierakoak baino gehiago edo gutxiago gustatzen zaizkizue?
- Zer informazio ematen digu kartelak?
- Ba al dakizu non egiten ote zen Azoka hamarkada honetan?



Non dago zer?

Garai batean Durangoko Liburu eta Disko Azoka zena, gaur egun **DURANGOKO AZOKA Kulturaren plaza** deitzen da. Gaur egun, Azokak, liburu eta diskoez gainera, beste hainbat jarduera eta gune biltzen ditu. Guneok zeintzuk diren eta non dauden ikasteko irakurri arretaz Marik azokako eskuliburuan aurkitu dituen pistak.

DURANGOKO AZOKA



Azoka: Landakogunean. Disko eta liburuen salmentagunea.

Saguganbara: Ume eta gazte eta familientzako gunea. Azoka ondoko Elkartegian.

Ahotsenea: Musikariak eta idazleak zuzenean eta gertutik ikusteko gunea. Karpapean, trenbide zaharren ertzean.

Irudienea: Euskal zinearen gunea, Zugaza zineman.

Plateruena Kafe Antzokia: Landakogunearen eta Elkartegiaren ondoan. Kontzertu handiak antolatzen dira bertan.

Kabi@: Teknologia berrien gunea. Landakogunearen barruan.


Szenatokia: Antzerkigintzaren gunea, San Agustin Kultur Aretoan.

Areto Nagusia: Landakogunearen barruan: Liburuen aurkezpenak, inaugurazioa eta amaiera ekitaldia eta bestelakoak antolatzeko gunea.

BERBETAN

- Marik eman dizkigun argibideekin eta logotipoek adierazten dutena kontuan hartuz, kokatu Azokako gune bakoitza mapan.





Nork? Zer? Noiz?

Leire Bilbao Barruetabeña

1978, Ondarroa

• IDAZLEA.



Durangon bizi da Leire Bilbao Barruetabeña, idazlea.

Gaztetxotatik hasi zen literatura lehiaketetan parte hartu eta sariak jasotzen. 2006an eman zuen argitara bere lehen liburua *Ezkatak* (Susa, poesia). Urte berean *Amonak nobioa du* argitaratu zuen Elkar argitaletxearekin.

Geroztik hainbat lan argitaratu ditu, bai poesian, baita haur literaturaren alorrean ere. 2013an Etxepare album ilustratuen saria irabazi zuen Maite Mutuberrria ilustratzailearekin ondutako *Gerrak ez du izenik* liburuarekin.


1937an Durangon jasandako bonbardaketan kokatuta dago kontakizuna.



► www.galtzagorri.org/euskara/idazleak/leire-bilbaobarruetabena/bibliografia



Maite Mutuberrria ilustratzaileak *Gerrak ez du izenik* liburuan arkatzez, tintaz edo margoz eginiko irudiez gainera, moztu eta paperean itsatsitako argazkiak ere erabiltzen ditu, *collage* deitu ohi zaion teknika. Kontuan hartu bada, zuen kartela egiterako orduan ere, zeuek gura dituzuen bitartekoak erabili ditzakezuela. Irudimenarena izan dadila muga bakarra!



<https://vimeo.com/109113644>





Kartela

Heldu da ordua! Durangoko Azokako kartela egiteko jakin behar-koak badakizkizue honezkero, ezta? Edozelan ere, ezerk ihes egin ez diezagun, gogoratu ditzagun lanean hasi aurretik zenbait ohar.

Kontuan hartzekoak:

- 1 Gaur egungo Azokaren izena hauxe da:
DURANGOKO AZOKA kulturaren plaza.
- 2 Azokaren zenbatgarren edizioa den argi adierazi ezazu.
- 3 Azoka zer datatan hasi eta bukatuko den ere argi eta egoki adierazi ezazu.
- 4 Azoka nork antolatzen duen argi adierazi ezazu (logotipoa edo izena).



Ez ahaztu!

Kartela egin ostean argazkia egitea, eskolan erakustea eta Gerediaga elkar-tera bidaltzea.

Zer ikasi dut?

1. Zer ikasi dut?
2. Zelan ikasi dut?
3. Zer ikasi dut nire ikaskideengandik?
4. Emandako informazioa, materiala, egokia izan da?
5. Gehien gustatu zaidana

